

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak 60,9 milioiko defizitarekin amaitu du 2016. urtea, BPGren % 0,32, % 0,7an jarritako helburuaren azpitik

Foru Gobernuaren datuen arabera, zorpetze-mugaren helburua ere bete du, BPGren % 18,3an ezarri zena

Asteazkena, 2017.eko otsailak 8

Gobernuaren behin behineko datuen arabera, Nafarroako Gobernuak 60,9 milioiko defizitarekin amaitu du 2016ko ekitaldia; BPGren % 0,32 da hori. Halaxe jakinarazi du Mikel Aranburu Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Gobernuaren saioan.

Mikel Aranburuk datu horren balorazio positiboa egin du eta, adierazi duenez, horrek erakusten du Gobernu honek zorrotz kudeatu dituela baliabideak, bateragarri eginez behar sozialei, hezkuntzakoei eta osasunekoiei erantzutea eta garapen ekonomikoa eta enplegua bultzatzea kontu publikoen jasangarritasunarekin, defizitaren eta zorpetze-mailaren mugaren helburuak betez; % 0,7an ezarrita zegoen lehenengoa eta % 18,3an bigarrena (biak ere Foru Komunitateko BPGren portzentaje gisa ezarritakoak). Datuok behin-behinekoak dira oraindik, maiatzean osatuko baitira behin betikoak, azkeneko ukitu eta auditoriekin. Hala ere, egon daitezkeen aldaketa txikiak ez duten eraginik izango defizitaren BPGren gaineko azken portzentajea.

Kontseilariak adierazi duen bezala, defizitaren datuak "berretsi egiten du Nafarroako Gobernuak abiarazitako erreforma fiskalaren beharra eta egokitasuna; erreforma horrekin lortu nahi da Nafarroako gizartea azkeneko urteetan sufritzen ari zen gastu publikoaren murrizketei aurre egin ahal izatea".

Zentzu horretan, gogorarazi du erreforma fiskalaren ondorio positibo gehienak ez ditugula ikusiko aurtengo ekitaldira arte, nahiz eta 2016an dagoeneko nabaritu diren arren zertxobait PFEZko laneko atxikipenetan.



Nafarroako Jauregiaren fatxada, Carlos III.aren aldera.

Aitzitik, 2016. urtean 2014ko erreforma fiskalak markatutako diru-bilketa egin da, zuzenean ikus daitekeen bezala Ondasunen gaineko Zergetan galdu diren 17 milioietan edo Sozietateen gaineko Zergaren kuota diferentzialeko 9 milioiko galeran.